

31. atala: Bakarka

Izena eta izana

31.1.- 31.1.- Audioa entzun eta erantzun galderei:

1. Nork esan dio Tasioki arazo linguistiko bat dutela?
2. Gure herrialdea izendatzeko izena euskara hutsez eman al zen nazioartean ?
3. Kevinek ba al daki zein den izen hori?
4. Zer arazo sortu da?
5. Kevinek idatzitakoaz zer dio Tasiok?

31.2- Tasiok dioenez, nazioartean nahastu egiten dituzte Euskolanda eta Scotland. Izenez gain, beste gauza askok lotzen dituzte bi herri horiek: hizkuntzak, herri-kirolak, eguraldiak, paisaiak, aldarrikapen politikoak...



Eskoziarrak Euskal Herria bisitatzera etortzeko gida bat prestatzen ari zarete. Zuk sarrera idatzi behar duzu. Izenburua hauxe da: "Etxean bezala sentituko zara"

Gidaren sarrera idazteko lagungarriak izango dituzu egitura hauek:

Antzekotasuna adierazteko: zerbaiten antza izan; bezala eta bezalakoa; bat etorri; berdintsua izan...

- *Bi ahizpek antza handia dute*
- *Horiek gu bezala janzten dira*
- *Zure etxea ez da nirea bezalakoa*
- *Zure herria eta nirea berdintsuak dira*
- *Ez gatoz bat proposatu digutenarekin*

Desberdintasuna adierazteko: erabat desberdina izan; guztiz kontrakoa izan/egin; zeri-zerikusirik ez izan...

- *Zure eta niri iritziak erabat desberdinak dira*
- *Guk adostutakoa zuk esandakoaren guztiz kontrakoa da*
- *Erabat desberdina da zuk diozuna*



31. atala: Bakarka

Transkripzioa (02:48)

T- Johnson!

K- Zergatik kostatzen zaizue hainbeste Kevin Mikel hots egitea?

T- Johnson, Eskisabelekin hitz egin berri diat. Arazo bat zeukeagu.

K- Orain zerekin? Erregaia? Oxigeno-biltegia? Eguzki-panelak?

T- Ez, ez, ez... Arazo linguistiko bat.

K- E, ja. Nahikoa dugu astronauta eta ortzinautaren kontu horrekin, ez?

T- Ez zeukak zerikusirik horrekin.

K- Orduan?

T- Kontua duk, independentzia lortu genianean, nazioartean gure herrialdea izendatzeko izen bat aurkitu behar izan genuela.

K- Bai, badakit. Tira ez zaitetz orain klasea ematen hasi, e?

T- Eta zein duk, bada, izen hori?

K- Ze izen?

T- Bada, nazioartean gure herriari ematen zaiona.

K- Ze uste duzu, ez dakidala?

T- Jakingo bahu, honez gero esango huan.

K- Badakit, baina orain ez dut esango nire harrotasunean min ematen dit zure mesfidantza horrek.

T- Aber, noiz onartuko duk ez dakiala, e?

K- Baina ze uste duzu zuk? Noski badakidala. begira, paper honetan idatziko dut badakidala frogatzeko

T- benga, benga...

K- ... baina gaur behintzat ez dizut erakutsiko.

T- Euskaraz eta ingelesez izan behar zuenez, bada, azkenean...

K- Baietz, badakidala...

T- Beraz, azkenean zein izen jarri zitzaioan, e?

K- Esango al didazu behingoz zein den arazoa? Eta gainera, guk zer egin dezakegu hori konpontzeko. Hori Euskaltzaindiaren VII. Asanbladako zure lagun horiek konpondu beharko dute.

T- Aberriak hiregatik zer egin dezakeen galdetu beharrean, hik heuk aberriaren alde zer egin dezakeen galdetu beharko huke.

K- Oh my God!

T- Euskoland.

K- Zer?

T- Ikusten? ez hekian.

K- Eta zein da arazoa?

T- Bada, Euskoland izendapenarekin arazo larria daukagula. Nazioartean Euskoland, Scotland-ekin nahasten dutela, eta gatazka diplomatikoak sortu dizkik dagoeneko.

T- Ea, erakutsidak zer idatzi duan paperean.

K- Ez.

T- Baietz, erakutsi.

K- Tori, total, zuen arazo linguistiko horiek ez zaizkit batere inporta.

T- Basquerria?

K- Bai, Basquerria

T- Basquerria? Basquerria. Kevin Mikel.

K- Eta orain zertara dator Kevin Mikel hots egitea? E, zertan zbiltza, ez eman musurik!!

T- Eskisabel kapitainarekin konektatu. Eskisabel kapitaina! Uste dut badaukagula gure herria izendatzeko arazoarentzat irtenbidea edo ordezeko aukera.

Erantzunak

31.1.-

1. Eskisabelek.
2. Ez. Euskaraz eta ingelesez.
3. Ez, ez daki. Berak, ordea, baietz dio etengabe.
4. Euskoland eta Scotland hain antzekoak izanik, gatazka diplomatikoa sortu da nazioartean.
5. Tasiore gustatu egin zaio Kevinek idatzitakoa, eta Eskisabeli deitu dio proposamena egiteko.